



Donostia, 2012ko Martxoaren 20a

## **PRENTSA OHARRA**

**Arazakeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren bezperan**

**Arrazakeriaren aurkako XV.Martxa bultzatzen duten 56 erakundeek gure gizartean zabaldurik dauden zurrumurruak eten daitezten eskatzen dute**

Gaur goizean Koldo Mitxelena Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako XV. Martxa aurkeztu dute. Aurten ere, Pasaiako Trintxerpeko azoka eta Donostiako Boulevard arteko ibilbidea egingo du Martxak. SOS Arrazakeriak, **medicmundi** gipuzkoak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak antolatzen duten Martxa honek, aurten ere atxikimenduen markak hautsi ditu, dagoeneko **56 erakunde** egin dute bat ekitaldiarekin. Gainera, urrenez urreneko hirugarren urtea da IES Usandizagako Diseinu Grafikoko Goi mailako Heziketa Zikloko (<http://www.usandizaga.com/design/>) lehenengo mailako ikasleek Martxan hartzen dutela parte; ikasle hauek, komunikazio kanpaina eta gaur goizeko prentsaurrea baino lehenago egin den *flash-moba* antolatu dituzte.

**Zurrumurruen aurkako Martxa.** Etorकिनenganako aurreiritzi eta estereotipoen aurka” lemapean, Martxa bultzatzen duten elkarteek etorkinei egozten zaizkien zurrumurruak eteteko eskatu dute eta honekin batera, gure jendartean sortu diren aurreiritzi eta estereotipoak baztertu daitezela. Mezu hau zabaltzeko, Usandizaga BHIko ikasleek komunikazio kanpaina sortu dute eta weba eta sare sozialak erabili dituzte zabaltzeko (#antirumor #antizurrumuru). Gaur goizeko *flash-moban* parte hartu duten pertsonak etorkinenganako dauden zurrumurruak isilarazteko asmoa zuten eta horretarako, latorrizko latekin zarata atera dute denbora luzez.

Martxa bultzatzen duten erakundeek diote arazo larria dela ‘aurreiritzi oso sendoak’ dituen bertako populazioaren ehuneko handi batek, gizarteko arazo guztien edo zati handi baten erantzukizuna etorkinei leportatea, batez ere bizi dugun bezalako krisi garaian errua bere gain botaz. Martxa antolatzen duten erakundeek azpimarratu dute aurreiritzi, estereotipo eta zurrumurruek errealitate soziala desitxuratzen dutela eta alde zuzenetik “gu”tik kanpo utzi ditugun talde eta pertsonen ezaugarri ezkorrak atxikitzen dietela. Horrela, “froga sendorik gabe eta errealitatearen azterketa serioirik egin gabe aldarrikatzen dugu etorkinak ez direla integratzen, gizarte-laguntza gehiegi eskatzen dituztela, behar ez luketen lanpostuak betetzen dituztela edota euren”kultura de la eta delitu gehiago egiten dituztela”.

Datuek, ordea, ez dituzte baieztapen horiek berresten. Adibidez, etorkinen gehiengoa gizarte-laguntzak jasoz bizi dela dioen zurrumurruren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren 2010ko Euskadiko Populazio Atzeritarraren Inkestak (EPIE) dio etorkinen %80a bere lanetik jasotako diru-sarrerekin bizi dela eta soilik %2k jasotzen duela pentsioren bat edota gizarte-prestazioren bat.

También está extendida la idea de que quitan el trabajo a la población autóctona, cuando existen estudios que reflejan cómo la crisis económica está afectando especialmente a las personas inmigrantes. Según la EPA del cuarto trimestre de 2011 del INE, la tasa de paro entre la población española es del 20% frente al 34% de la inmigrante.

Hedatutako beste ideia batda etorkinek bertakoei lana kentzen dietela baina hainbat ikerketek frogatzen dute krisi ekonomikoak etorkinengan bereziki oso eragin gogorra duela. EINEko 2011ko laugarren lauhilabetekoaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, Espainiako populazioaren artean langabezi tasa %20koa da eta %34koa etorkinen artean.

Bertako herritarrek baino delitu gehiago egiten dituzten ideari dagokionez, arrazakeriaren aurkako Martxa sustatzen duten erakundeek zifren zehaztasunaren garrantzia azpimarratzen dute. “2010eko datuen arabera, Ertzainak atxilotutako pertsonen %57 atzerriko pertsonak ziren. Hala ere, delitu horien erdia lege hauste administratiboak ziren, eta ez penalak; hortaz, arau hauste penalen ondorioz atxilotutakoen atzeritarren zenbatekoa laurdena izango litzateke”

Arrazismoa eta Xenofobiaren aurkako Martxa bultzatzen duten elkarteak ondorengoak dira: **SOS Arrazakeria medicmundi gipuzkoa Coordinadora de ONG de Euskadi Adiskidetasun Altzako ibiliz solidaritza taldea AMHER Asociación Arrats Asociación SARGI ASOLEUS Asociación Vicuña Banda Bat Behar Bidasoa Berpiztu Elkarte Bide Bidez Ekarrak Calcutan Ondoan Caritas CEPA Zuloaga GITE-CCOO de Euskadi CCOO Consejo de la Juventud de Euskadi Economistas Sin Fronteras EHGAM ELA Sindikatua Ehan Euskadi Entre Culturas-Elkarrekin Bizi ESK Sindikatua Esperanza Latina FISC Euskal Herria Fundación ADSIS Fundación Adra Fundación EMAUS Fundación Hauñalde Guztion Artean Harresiak Apurtuz Gipuzkoa Helduak Kaebnai Kamelamos Adiquerar Kobere Guztak Komite Internazionalistak LAB Sindikatua Loiolaetxea Elkarte Molen Etxea Mugarik Gabe Mugen Gabelek Mujeres del Mundo Unidas Mundubat Peñascal S.Coop. Plataforma Pobreza 0 Plazandrek Proclade Prosalus Setem Hego Herria Sodepaz STEE-EILAS Sindikatua TAU Fundazioa Tercera edad para el tercer mundo TANDEM Fundazioa**

**Informazio gehiagorako: Anaitze Agirre** Telefono zenbakiak: 943321811 / 655717292 E-mail: [komunikazioa@mugak.org](mailto:komunikazioa@mugak.org) // **Silvana Luciani**, SOS Arrazakeriako kidea. Telefono zenbakiak: 943321811 / 680514367. E-mail: [info@mugak.org](mailto:info@mugak.org)